

LEHEN PARTEA

A) DOM. PEILHENI HITZ APURTUAK

Hemen dago gizona. Paper
honetan dago. Nago.
Gizonago
sentitzen naiz.
Ta maiz
eznaiz
sentitzen.
Hortik dabil, eztakit
nundik;
agian
Lemoara doa tranbian.
Baina hemen,
paper honetan
dago.
Hemen imini du
bere zera. Zer da? Ezer ezta. Eder
festa.
Esan zuen:
*Jauna, berorren zerbitzari apur
honek,*

*jakin du nola etxe horretan libre
dagoen giltzeroaren
enplegoa. Beraz, nunbait teilatupe
bat edukitzeko premia bizian
aurkitzen
naizelarik, atsegintasuna dadukat
berorren-
Mesedeari nire zerbitzuak
eskeintzean, eta
eta eta eta...
Jainkoak salba dezala Espainia.
Halako egunean. Otxarkoagan.
Gizona apurra da.
Berak aitortu du.
Eta baldin hitz egin behar badut,
ezpanaiz isiltzen,
nire hitza
gizonaren parekoa izanen da, eta
eta eta eta...
(noiz arte, Katilina!),
eta (lehen zen edo)
nire hitza zuri zuzentzen
dizudanean,
nire eskaratzetik hartzen dut
ganibeta,
penaz eta ezin-bestean,
burnia sartzen dut haren barnean,*

eta entregatzen dizut
hitza
apurturik.
Gizonaren berdina izan dadin.
Hemen.
Jesus.